

## BASOTAR BATEN KANTUA

Itsas aldeko mendi-gaiñ au da  
aritz ta pagoz betea  
nere jauregi basakoya ta  
ni naiz emengo erregea;  
chakur ernai bat ondoren daukat  
arrotzen zanko zalea,  
ori da nere lagun leyala,  
aizkora berriz legea.

Ni gaur bezela nere  
guraso zarrak len  
egatz ugariya dun  
arrano abillen  
antzera loki gabe  
beti-beti gallen  
jayotzetik il arte  
izan ziran emen.

Bear bezela gorderik zintzo  
aien obi zar goituba  
arkaitz ondoko baso beltzian  
darukat bizi-lekuba;  
errezago da noski tontor ta  
indarrez neri kenduba  
beñ izan baño len ikustia  
chimistaz purrukatuba.

Irrintz alai egiñaz  
udara ta negu  
nere deadar otsa  
mendiyak maite du;  
ez da bere kolkoan  
ez da ez, ¡uju-ju!...  
lagun detan ekaitza  
besterikan sartu.

Or bealdeko gezur-zuloan  
dabillen etsai taldea  
ezin liteke izan beñere  
euskal-mendiyen jabea;  
jakin bezate, jakin arrotzak  
il arte beti nerea  
izango dala bai, ¡erru pola!  
baso beltz eder maitea.

Kopet illundun arrotz ergala  
grña gaiztoaz panparroi  
oyu t'erronkaz iñoiz bezela  
ja gizajoa!, betor, bai;  
betor, eta naiz ondoren izan  
uritar beste mill'etsai  
guzik batian ez dira nere  
erasoaren diña gai.

Betor, betor, albadu,  
betor onuntz gora  
chakur salatiba ta  
ni gauden basora;  
baldin igoko balitz  
au luke lepora  
jaso t'eskuban zorrotz  
daukatan aizkora.

Emen ez dago mendi gañean  
or bean ainbat azari,  
emen legeak gordetzen dira  
zelayan ez bezin garbi;  
negubak ere jazten baditu  
elur lumaz churi-churi,  
elur au bean loi biurtzen da,  
goi ontan berriz iturri.

Gizon argi t'aundiya  
bere ustez izanik  
zelaitarrak basoan  
¿aldu zer egiñik?  
Aritz lodi tartean  
iñolaz oraindik  
makal-enborra sortzen  
ez det ikusi nik.